



Aldizkaria

Orbegozo

2005eko... ia 110. alea

Orbegozo: herria goitik behera aldatu zuen lantegia

KOLABORAZIOA: IBON GARMENDIA
ELKARRIZKETAK: MIREN ELGARRESTA - JOXE LEUNDA
IZERDI PATSETAN: UROLA, ESKUBALOI JOKALARI HARROBI BIKAINA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako
mintegiak



Bilatu eta aurkitu: Nola bilatu Interneten?

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da **enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa**? **Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa**, gure **lehiakideen jarduerari buruzkoak**, dauden **dirulaguntzak** eta horiei buruzko informazioa... ezagutzea gure **negoziorako mesedegarri izan daiteke**.

Urola Garaia
azaroak 24
ZUMARRAGA
Urola Garaiko Fundazioa
(UGLE)

Orduategia:
18:00-20:00


Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

 **euskadi**
informazio puztuan in la sociedad de la información

e-gipuzkoa SPRI

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

ARGAZKI ZAHARRA



1905ean jaiotakoek euren 50. urtebetetzea ospatzeko egindako bazkarian ateratako argazkia.

Goiko ilaran: Modesto Arrizabalaga, ..., Jose Plazaola, Daniel Ibarzabal, Paco Mendizabal eta Marcelino Olaizola.

Erdiko ilaran: Nicolas Badiola, Jose Inazio Zaldua, Isidro Arzelus, Jose Mari Landa, ..., Etxaniz, Martin Antia, Anastasio Larrañaga, Victor Pastor, ..., ... eta Joaquin Ormazabal.

Beheko ilaran: ..., Juanito Etxeberria, ..., Antonio Hernandez "Bera" eta Manuel Martinez de Gereño.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea.

Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61

Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



arropa informala

Barrenkale
Urretxu

943 72 40 57

UROLA


ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA


KLIK ETA KLIK



Argazkia elkarteko kideek ateratako erretratuak.



KLIK ETA KLIK



2005eko urria

Baziren bi herri lan

40ko hamarkadan Orbegozo ez zen oraindik lantegi handia.
Fco. J. Aguado Goñik utzitako argazkiak.
Azaleko argazkia: Foto Maestro.



Garai batean nagusi izan zen zumegintza eta hau ordezkatu zuen altzairugintza elkarren ondoan.



Legazpi, Urretxu eta Zumarraga Gipuzkoako metalurgiaren gune nagusia izan dira, Patrizio Etxeberria eta Esteban Orbegozo lantegiei esker batez ere. XX. mende erdialdean, bi lantegi hauen hazkunde izugarriak herri hauen izaera eta tamaina erabat aldatu zituen. Patrizio 3.300 langile izatera heldu zen eta Orbegozok, berriz, 3.000 pasatxo izan zituen: Urretxu eta

Zumarragako ia familia guztiek zuten kideren bat Orbegozon lanean. Antonio Prada Zumarragako Udaleko agirizainaren eta Iñaki Abasolo langilearen eta Luis Blanco eta Antonio Molina langile ohien laguntzaz, bi nekazal herri industrigune bihurtu zituen lantegiaren historia laburra osatu dugu. Horretaz gain, hiru lagun hauen testigantzak jaso ditugu.

1929an eskari bat heldu zen Zarautzik Zumarragako udaletxera: Esteban Orbegozo izeneko gizon batek lursaila eskatu zion udalari, bertan lantegia jartzearen truke. Udalak zinegotzi bat bidali zuen Zarautzera Orbegozok bertan zuen lantegia ikustera eta honi ikusi zuena gustatu zitzaion: lantegi txukuna zen eta Zumarragan jartzea merezi zuen. Udalak baldintza bakarra jarri zion Orbegozori: herriko langileak hartzea.

1930ean, egun tanatorioa dagoen tokian, ireki zuen lantegia Esteban Orbegozok. Handik urte gutxitara hil egin zen eta bere semeek, Faustinok, Saturninok eta Pedrok, hartu zuten enpresaren ardura.

Gerra garaian, beste lantegi asko bezala, militarren esku egon zen eta horrek bultzada eman zion. Dena den, hazkunde-rik handiena gerra ostean izan zuen: 50eko eta 60ko hamarkadetan. Bi hamarkada horietan, Orbegozo 100 langile pasatxo

izatetik 3.000 lagun izatera pasatu zen. Gezurra badirudi ere, garai hartan lantegietako arduradunak langile bila joaten ziren geltokira eta, ondo lan egiten bazuten, familiakoei eta ezagunei deitzeko esaten zieten. Gaztelatik, Extremaduratik, Galiziatik... langile asko etorri ziren.

Urte haietan Zumarragako populazioa ia laukoiztu egin zen eta Urretxukoa bikoiztu. Trenak etorkinez gain heltzen ziren eta gure herriak ez zeuden halako etorkin andana hartzeko prestatuak. Hala, etorkin hauetako asko ordura arte abandonatuak egon ziren baserrietan eta ardi- txaboletan pilatuta bizi behar izan ziren auzo berriak egin ziren arte. Askok, urik gabe, komunik gabe, argindarrik gabe... bizi ziren; San Martín, Legazpi auzunea, Aparizio, Mundo Mejor, Etxeberria, Urola kalea... egin ziren arte. Etxe berriak berehala saltzen ziren eta, inflazio handia zegoenez, 5-10 urtetan ordaintzen ziren.

Urte oparo haietan, Orbegozon denetik egiten zen: sukaldeak, ur-berogailuak, bainerak, iturgintzarako osagarriak, tuboak, autoentzako txapa... Geroz eta labe handiagoak eta modernoagoak behar ziren: hasieran kokez zebilen labea, gero tximinia erraldoiak zituzten Siemens labeak, ondoren Kaminpe...

Baina dena ez zen oparotasuna Orbegozon, langile askoren lan baldintzak oso txarrak baitziren. Sindikatuak legez kanpo zeuden, baina, lan baldintza gogorrek bultzatuta, langile mugimenduak sekulako indarra hartu zuten: hainbat greba egin ziren, enpresak langileen buruzagiak kaleratu zituen, polizia atxiloteta ugari egin zituen... 1969ko urte bukaeran greba handia egin zen arte. Greba hark hiru hilabete iraun zuen eta sekulako elkartasun uholdea eragin zuen. Beste herri batzuetan ere langileak kalera atera ziren, Euskal Herriko bazter guztietatik zein atzeritik

tegi bati itsatsiak...

Ezkerretara labe zaharra eta eskubitara lehenengo Siemens labeen tximiniak.



Zumarragako elizan itxialdian zeuden Orbegozoko langileei janaria eta dirua bidali zitzairen...

Azkenean, enpresak langileen zenbait eskakizun onartu zituen. Baina greba ez zitzairen batere merke atera ez enpresari eta ez langileei ere. Izan ere, greba ostean, Orbegozotarrak enpresaren sail batzuk Lezora eta Agurainera eraman zituzten. Gainera, geldialdiak hainbat bezero galtzea eragin zuen. Horien artean garrantzitsuena SEAT izan zen.

Aurrerantzean, ia dena gainbehe-

ra. 70eko hamarkadan nazioarteko krisi energetikoa izan zen. 1982an, berriz, ETAK Saturnino Orbegozo bahitu zuen. Handik urte gutxitara bankuak etorri ziren ate joka: enpresak eurekin zorrak zituela eta enbargatzera. Zorionez, langileek gertatu behar zen berri izan zuten eta atea itxi zituzten enbargoa galarazteko. Hilabete batzuetan ezinegona nagusitu zen Urretxu-Zumarragan: Orbegozo 1.000 langile inguruko lantegia zen oraindik eta bi herrien etorkizuna kolokan zegoen. Azkenean, estatuak dirua jarri zuen eta Marcial Ucin

enpresak, pezeta baten truke, Orbegozo hartu zuen. Orbegozotarrak Madrilerara joan ziren bizitzera.

Ordutik, aurrejubilazioak eta enpresaren modernizazioa izan dira nagusi. Ucin Aceralia enpresaren eskuetara pasatu zen eta Aceraliak, beste batzuekin, Arcelor multinazionala sortu zuen. Arcelor Zumarragan 300 lagun pasatxok lan egiten dute eta ez dago trenean, maleta eskuan, heltzen diren peoienez tokirik. Urretxu eta Zumarragan ez dira jada langile ilarak ikusten, ez da adar hotsik entzuten.

Antonio Molina: "Garai hartan oso polita zen herrian zegoen giroa ikustea"

Antonio Molina Sorian jaio zen, baina bertako bizi baldintzak ez zituen gustuko eta Urretxu-Zumarragara etorri zen. Molinak Zumarragako Udalean eta Alcorta y Mendizabal enpresan lan

Esteban Orbegozo enpresa Sorian ere eza-guna omen zen. "Sorian lan egin nuen azken herrian jaiotako asko Lasartera etorri ziren eta, oporretan itzultzen zirenean, Orbegozo aipatzen zuten. Zumarragan lana aurkitzeko arazorik ez nuela izango esan zidaten eta 1952an, 22 urterekin, etortzea

erabaki nuen".

Ostatu hartzea lana aurkitzea baino zailagoa zen. "Trenetik jaitsi nintzenean, udalaren obretan lan egin nahi nuen galdetu zidaten. Melitonen ohea alokatu nuen eta han hilabete pasatxo eman nuen. Ondoren, Zumarraga goialdera joan nin-

egin zuen Orbegozon hasi aurretik. Bertan 13 urte eman zituen, langile mugimenduan aritzeagatik kaleratu zuten arte. Ondoren ere, Patrizion, sindikatu munduan jarraitu zuen.

tzen. Bertan, ahizpa batzuek hiruzpalau apopilo-etxe zituzten. Gela bakoitzean hiruzpalau lagun egoten ginen eta tabernetan bazkaltzen genuen. Ondoren, ezkondu nintzen arte, Eitzan egon nintzen".

Molinak bi hilabete besterik ez zituen eman Zumarragako udalean lanean.

HILABETE HONETAKO GAIA

"Negua heldu aurretik, Alcorta y Mendizabal enpresan lana eskatu nuen: biharamunean joateko esan zidaten. Sei hilabete eman nituen tornuan laguntzaille. Bigarren mailako ofizial kargura igotzen ez nindutenez, Orbegozon lana eskatu nuen. Bertan gehiago irabazten zen, baina lana gogorragoa zen. 12 orduko bi errelebotan lan egiten genuen, fundiziotik sukaldetarako ateratzen ziren piezak aireaz eta areaz garbitzen. Sei hilabetez behin medikufroga pasatzen genuen, silikosisia hartzeko arriskua baikenuen. Hori dela eta, inork ez zituen bi urte baino gehiago ematen lan horretan".

Urte eta erdi eman zuen piezak garbitzen, Siemens labeetara bidali zuten arte. "Hasieran ikatzaren gasarekin eta ondoren fuelarekin metala urtzen zuten labe izugarri handiak ziren. Galdaketa bakoitzean 60 tona altzairu ateratzen zen. Ez ziren sekula gelditzen eta bertan lan egiten genuenok apur bat gehiago irabazten genuen. Hori dela eta, beste sailtako askok Siemens labeetan lan egitea eskatzen zuen. Nagusiei euren jaioterrietatik urdaiazpikoak-eta ekartzen zizkietela gogoratzen dut. Lotsagarria zen, baina halakoa zen garai hura".

Lan baldintzak oso gogorrak ziren. "Diktadura modukoa zen. Orbegozotarrek bazuten langileak nork estutu eta miseria handia bizi zen. Sail bakoitzean komun zikin bat besterik ez zegoen, dutxarrik eta konketarrik ez zegoen. Terrazetako urarekin betetzen genituen palanganak".

Hala, Molinak langileen lan baldintzak hobetzeko lan egitea erabaki zuen. "Gehiegikeriak jasan ezin genituenok, erreklamazioak aurkeztu eta grebak bultzatu genituen. Lehen greba 1956an egin zen labe elektrikoetan, baina errelebu bakarrak egin zuen geldialdia. Beste bi errelebuak 12 ordutara jarri zituzten eta



greba egin zuten errelebuko 14 lagunak kaleratu egin zituzten. Gertaera hark langileon batasuna bultzatu zuen. Ordutik aurrera, erreibindikazio guztietan kalera-tuak berronartzeko ere eskatu genuen".

Erreibindikazio gogorrak 1966an hasi ziren. "Ordurako langile mugimendua hobeto antolatuta zegoen. Otsailean soldata igoera eta segurtasun neurrien hobekuntza eskatzeko greba egin genuen. Enpresak 18 lagun kaleratu zituen. Irimok eta Sarraldekin ere geldialdia egin zuten eta

manifestazioan 7.000 lagun inguruk parte hartu genuen. Correos dagoen tokian Goardia Zibilak kargatu egin zuen. Horrek giroa are gehiago gaiztotu zuen eta, gainera, atxiloketak hasi ziren. Greba egiteko arrazoi bat gehiago... Eibar ere kalera irten zen Zumarragako langileekin elkartasuna adierazteko. Han ere atxiloketak egon ziren. Hurrengo pausoa CCOOren Gipuzkoa mailako aurkezpena egitea izan zen, Zelai-Arztin hain zuzen ere. Goardia Zibilak aurkezpenean parte hartu zutenak Madrilera eraman zituen".

Giro horretan, grebak bata bestearen atzetik egin ziren. "Oporretatik bueltan, garai hartan astebetekoak ziren, lankideek kartzelan jarraitzen zuten. Berriro kalera irten ginen eta enpresak 28 lagun kaleratu zituen, tartean ni. Zerrenda beltza Euskadiko enpresari guztien esku zegoenez, ez ziguten inon lanik ematen. Hori dela eta, kale saltzaille hasi nintzen. Ondoren, Patrizion ere aritu nintzen. 1971n, berriz, familia hemen utzita Suitzara joan behar izan nintzen. Izan ere, CCOOko bat atxilotzen zuten bakoitzean gure izena aterako zen arriskutan geunden. Suizatik bueltan Patrizion lan egin nuen, 1991n jubilatua nintzen arte".

Antonio Molinak malenkoniarez oititzen ditu metalurgiaren urrezko garaiak. "Garai hartan oso polita zen herrian zegoen giroa ikustea, ehundaka langile lantegira nola sartzen ziren...

Aspalditik, gurea zerbitzuen herria bilakatzeko ari da. Arcelorrek 300-400 langile ditu, Irimo joan egin zaigu, Sarraldekin 30-40 langile ditu eta, gainera, U-Z Legazpira joan behar da. Ez da erraza hau guztia zergatik gertatu den azaltzea, baina nire ustez Eusko Jaurlaritzak beste zonalde batzuei lehenatasuna eman die. Pena handia ematen dit garai bateko giroa eta egungoa konparatzeak".

1969ko urte bukaeran hasi zen greba handian Zumarragako elizan itxialdia egin zuten langileak. Antonio Ayllonek utzitako argazkia.



Iñaki Abasolo: "Giroa asko aldatu da: lehen denok bat ginen, elkarri laguntzen genion..."

Iñaki Abasolo 15 urterekin joan zen lehenengoz Orbegozora. Dagoeneko 42 urte daramatza bertan lanean eta, normala den bezala,

jubilatzeko irrikitan dago. Hemendik hiru urtera jubilatuko da, bizitzaren hiru laurden bertan eman ondoren.

Abasoloren familia Durangon bizi zen, bere aita Orbegozora etorri zen arte. "Aitak Galdakaon lan egiten zuen, laminazio lantegi batean. Orbegozok laminazio trena muntatu zuen eta aita hor lan egiteko etorri zen 1954an".

Beste familia askotan bezala, semeak aitaren pausoak jarraitu zituen. "Batxilergoko hirugarren maila bukatu eta lanean hasteko gogoa nuen. Aitak Orbegozon lan egiten zuenez, bertan aurkeztu zuen eskaria. Elektrizitate kontuak atsegin nituela esan nien eta elektrikari aprendiz hasi nintzen. Ez zen lana, ikasketa baizik. Huskeria ordaintzen zuten, baina hura izan zen nire eskola. Hasteko, ofizial baten ondoan, motoreak bobinatzen ikasi nuen. 16 urterekin, berriz, konponketa laguntzaile hasi nintzen. 18 urterekin hirugarren mailako ofizial egin ninduten eta makinak konpontzeko deitzen zidaten. Pixkanaka, gero eta matxura zailagoak konpontzen eta motore handiagoak bobinatzen hasi nintzen. 20 urterekin aprendiz bat hartzen zenuen, gero mailaz igo... horrelakoa zen sistema".

Orbegozo lantegi handia zen Iñaki Abasolo bertan hasi zenerako. "Garai hartan 2.500 lagun inguru izango ginen. Eskulan asko zegoen, lana oso neketsua zenez, jende asko behar baitzen. Gainera, denetik egiten zen eta sail asko zeuden: tutueria, iturgintza osagarriak, sukaldeak, ur-berogailuak, iltzeak eta alanbre arantzaduna egiteko trefilaketa, ajustajea, fundizioa... Aparicio, Madaya eta Sarralde ere handiak ziren, baina Orbegozoren ondoan...".

Abasolo hasi zenean, etorkinen ailegaera puri-purian zen. "Beste bost urte edo iraun zuen horrek. Ez genion garrantzia handirik ematen, dagoeneko jendez



gainezka zetozen trenak eta autobusak ikustera ohituak baikeunden".

Etorkin guztientzat lana zegoen, peoi lana. "Laminazioan batez ere, lana oso gogorra zen. Hasieran, labe elektriko txiki bat jarri zen. Gero, Siemens labeak jarri ziren. Haietan sekulako jende pilak lan egiten zuen. Urte guztian ez zioten galdatzeari uzten, ez ziren gelditzen. Trenak ere bazeuden. Tuboa egiteari utzi zitzaionean, eraikuntzarako barrak egiteko trena jarri zen. Txapa asko ere egiten zen, SEAT auto enpresarako".

Hori guztia 1969ko greba handiaren ondoren aldatzen hasi omen zen. "Garai hartan soldadutzan nengoen. Greba haren ondoren hasi ginen soldata txukuna irabazten, baina SEAT enpresak txapa erosteari utzi zion. Hala, Orbegozok txapa egiteari utzi zion, nahiz eta zegoen

onena egiten zuen".

80ko hamarkadan, berriz, fabrika isteko zorian izan zen. "Enpresak porrot egin zuen eta bankuak gainera bota ziren. Langileok lantegia itxi genuen barruan ginela eta hala prezintatzea eragotzi genuen. Oso une gogorra izan zen, eskerrak langileok argi ibili ginen! Denok han itxi ginen eta inor ez zen sartzera ausartu. Ondoren negoziazioak hasi ziren, sozialistek kudeatzaileak jarri zituzten eta, azkenean, Ucinék Orbegozo pezeta baten truke erosi zuen eta enpresaren kargu egin zen. Gero Aceraliak hartu zen enpresa. Diotenez, enpresa errentagarria da eta hemengoarekin aurrera egiteko asmoa dute. Laminazio trenak berritzen ari dira, Kaminpeko fundizioan ere berrikuntzak egiten ari dira...".

Produktzioa hazi den arren, askoz ere langile gutxiago daude. "Langile jaitziera lantegiaren zati bat Agurainera eraman zutenean hasi zen, 70eko hamarkada hasieran. Siemens labeak kendu zituzten eta aurrejubilazioak hasi ziren. Nire aita 62 urterekin jubilatu zen, beste batzuk 58rekin, gero 60ra igo zituzten, beste batzuk 55 urterekin jubilatu ziren... Orain, 60 urterekin jubilatzen gara".

Langile kopuruak behera egitearekin batera, laneko giroa ere aldatu da. "Lehen sekulako jende joan-etorria izaten zen. Egurdiko 12:00etan, tutua jotzen zenean, toki guztietatik jendea ateratzen zen. Orain ez da tuturik jotzen: bakoitzak badaki zer egin behar duen eta automata moduan ibiltzen gara. Giroa asko aldatu da: lehen denok bat ginen, elkarri gehiago laguntzen genion... Halako enpresetako lana asko aldatu da. Guztiok elkarrekin otartekoa jatetik bakoitza nahi duenean kafea hartzera joatera pasa gara".

Luis Blanco: "Enpresa hartan harriak sartu eta urrea ateratzen zen, baina..."

Luis Blanco 1950ean etorri zen Valladolidetik gure herrira. Berehala Orbegozon lanean hasi zen: hasieran fundizioan, gero elektrizitate

sailean eta, azkenik, elektronika eta pneumatikan. 20 urte pasa dira jubilatuz zenetik, baina ondo oroitzen ditu lantegian bizitakoak.


Blanco artzain zegoen Urretxu-Zumarragara etorri aurretik. "Artzain nengoen, baina, ezagutza nuenez, jendeak handik ateratzeko esaten zidan. Ekainaren 3an etorri nintzen, larunbata zen, eta 5ean, astelehenean, lanean hasi nintzen. Garai hartan pertsonal-burua Valladolidera, Andaluziara... joaten zen lan egiteko jende bila, baina ni koinatuaren bitartez hasi nintzen Orbegozon lanean".

Fundizioan hasi zen. "Ia hamairu urte eman nituen bertan, ezagun batek nire alde egin zuen arte. Pertsonal-buruak arratsaldeetan irratia eta telebistak konpontzen nituela jakin zuen eta elektrizitate sailera pasa ninduten. Ondoren, elektronika eta pneumatikan izan nintzen; 57 urterekin jubilatuz nintzen arte. 20 urte pasa dira ordutik. Lanean asko ikasi nuen eta preziatua izan nintzen, hori oso garrantzitsua da".

Fundizioa izan zen Blancok Orbegozon egin zuen gogorrena. "Ondo irabazten zen, baina oso gogorra zen: garai hartan dena eskuz egiten zen, pisu handiak jaso behar genituen, eskuak odoletan izaten genituen askotan... Ordutik, ohean eserita erantzten eta janzen naiz. Bestalde, sekulako beroa pasatakoak gara: labera igo eta berehala uretara jaitsi behar botak sutan zeudelako, esate baterako".

Gainera, etorri eta lehenengo urteetan lantegitik oso urruti bizi zen. "Arreba Erosidoeta baserrian bizi zen eta beraiekin izan nintzen: handik herrira euri eta elurpean jaitsi egin behar zen... Igande askotan ez nintzen herrira etortzen, gauez itzultzea ez baitzen batere samurra. Hala ere, etxe txukuna genuela eta, pozik. Beste batzuk txabolatan bizi ziren...".

Blanco herrira etorri zenerako Orbegozo lantegi handia zen, baina gero



are eta gehiago hazi zen. "Enpresa hartan harriak sartu eta urrea ateratzen zen, baina hanka-sartzeak izan ziren, buru batzuek dirua hartu zuten, beste batzuek hirugarren mailako txatarra lehenengo mailakoaren prezioan ordaintzen zuten, entxufe asko egoten ziren, Orbegozotarren artean ere arazoak izan ziren... Enpresa izugarri hazi zen eta ez zegoen behar bezalako antolakuntzarik".

Luis Blanco sarritan joaten zen Saturnino Orbegozoren etxera, hango telebistak konpontzera. "Adiskidetasun handia nuen Maria Jesusekin, etxeokandreaekin. Telebista konpontzera lan orduetan joaten nintzenean ere, konponketa lana ordaintzen zidan. Lantegiko

buru askok, ordea, lantegiko margolariak, iturginak, igeltseroak... doan izaten zituzten. Mari Jesusek *batzuek lantegian gertatzen den berri ez dugula uste dute, baina badakigu nor borrokatzen den bere alde eta nor ez*; esaten zidan. Nik kunplitzen eta Orbegozotarrak nirekin beti oso ondo portatu ziren".

Dena den, ugazaben eta langileen artean arazoak izatea ere ez da harriztekoa. "Urte askotan estatuari ez zitzaion kobratzen genuen guztia deklaratu. Hori izan zen grebak egitearen arrazoietako bat. Enkargatua izan arren, greban parte hartu nuen eta pertsonal-buruak enkargatuei ematen zieten ikatza kenduko zidatela esan zidan. *Lasai kendu diezadakezue, ez didazue ematen eta*, esan nion. Ondoren, baja hartuz gero, langileei bezala, %75 soilik ordainduko zidatela esan zidaten".

Blanco 80ko hamarkada erdialdean jubilatuz zen. "54 urterekin jubilatzea eskaini zidaten, baina alabaren ikasketak ordaintzen ari nintzen eta ezin nintzela hain gazte jubilatuz esan nien. 57 urterekin jubilatuz ninduten: beste lana utzi behar zitzaien, nahiz eta batzuek ez genuen oraindik jubilatze onenetakoa izan zen. Pozik naiz, baina osasuna besterik ez nuen eskatzen eta duela ia bi urte emaztea joan zitzaidan. Lagunak eta seme-alabak ditut, baina emaztea galtzea oso gogorra da".

Luis Blanco ez da enpresan egon jubilatuz zutenetik. "Duela urte batzuk, makina berriak ikustera joateko esan zidan enkargatu batek. *Zertarako?*, esan nion, *nola funtzionatzen duten ez dut ulertzen eta!* Hutsaren hurrengo diruditen gailuek hamaika operazio egiten dituzte".

Miren Elgarresta, artzainen artzain

Iraila bukaeran herrialde askotako artzainak elkartu ziren Arantzazun Artzainen Mundu Mailako III. Topaketa zela eta. Ekitaldi hau Artzain Mundua elkarteak antolatu zuen eta Miren Elgarresta zumarragarra izan zen koordinatzaile nagusia. Elgarresta albaitaria da eta urte luzetan Azpeitiko ganaduzaleen kooperatiba batean lan egin du. Egun, Artzain Mundua elkarteko koordinatzailea da. Elkarte honen helburu nagusia artzaintzat merezi duten onespena lortzea da. Arantzazuko komentuan duten egoitzan izan ginen Miren Elgarrestarekin hizketan.

Artzaintza munduan lan egiten duzun arren, kaletarra zara.


Gurasoak baserritarrak dira: aita industrialdea egin zenean desagertu zen Erratzu Behekoa baserrikoa eta ama bizkaitarra. Aita, bere garaiko beste hainbat baserritar bezala, baserri girotik kalera jaitsi zen industrian lan egitera. Hala, gu kaletarrak gara; nahiz eta baserriarekin harreman handia izan dugun. Egunerokotasunetik kanpo beti mantendu izan dugu baserriarekin lotura.

Baserri mundua erakargarria egiten zitzaizun, gainera. Izan ere, albaitaritza ikasi zenuen.

Nire amak, kalean bizi arren, baserritik ateratzen ziren elikagaiak mantendu nahi izan zituen eta txabola bat izan genuen orain Antonino Oraa deitzen den auzotik gertu. Bertan, amak konejuak eta oiloak hazten zituen. Baratza ere bazuen. Txabolari esker, baserri nortasuna mantendu zuen: Ordiziara joaten ginen konejuak saltzera eta auzokideen artean barazkiak, arrautzak... saltzen genituen.


Nolatan erabaki zenuen albaitaritza ikastea?

14-15 urterekin, Institutura joatea erabaki nuenean, ez neukan batere argi zer egin. Naturarekin lotutako zerbait egin nahi nuen.





Miren Elgarresta Artzain Eskolako ikasleek "praktikak" egiteko dituzten ardiekin.



Artzain Munduaren egoitza Arantzazuko komentu barruan dago, baina aurki Bitoriano Gandiaga topagunera joango dira.

Hasieran mendi ingeniari-tza egitea pentsatu nuen, baina albaitaritzaren lanbidea zegoela ikusi nuenean, oso argi ikusi nuen. Baserriko animaliekin lan egin nahi nuen, naturan, ez klinika batean txakurrekin eta bestelako animalia txikiekin. Familia kontra jarri zen. Izan ere, albaitaritzaren lanbide zikina ikusten zuten emakume batentzat.

Non hasi zinen lanean?

Ikasketak bukatu eta berehala hasi nintzen lanean, Azpetiako ganaduzaleen Lurgintza kooperatiban. Ia 15 urtetan baserri ustiatuegi kudeaketaz eta produkzioari lotutako elikaduraz arduratu naiz.

Nolatan eman zen zure eta artzain munduaren arteko lotura?

Lurgintza kooperatiban behizaleak nagusi ziren, baina kudeaketa hobetu nahi zuten 12 artzain ere bazeuden. Artzain hauek beraien baserria enpresa moduan ikusten zuten eta egiten zuten hori errentagarria izatea nahi zuten. Ez nuen ardi mundua ezagutzen, baina momentu horretan baserriarekin zerikusia zuen edozer gauza niretzat erakargarria zen. Lehen urteak gogorak izan ziren, baina, behin euren konfidantza irabazita, oso mundu erakargarria sartu nintzen. Helburu bateratua genuen, euren bizi kalitatea hobetzea, eta esperientzia oso aberasgarria izan zen.

Nolatan hasi zinen Artzain Mundua elkartearekin?

2001. urtean hasi ginen ideia honekin, Artzain Eskolaren ekimenez. Eskola hau sortzearen ideia Eduardo Urarterena izan zen, beti artzain mundutik oso gertu bizi izan den teknikaria eta ameslaria. Artzain Eskola hasi eta berehala, 1997an, bertan irakasle hasi nintzen. Hiru ikasgai ematen dituzte: elikadura, kudeaketa eta proiektuaren zuzendaritza. 9. promozioa hasi berria da. Artzain Eskolari dedikazio handia eskaini diot eta Artzain Mundua elkartearen osatzeko ideia atera zenean, niri eskaini zidaten lehen pausoak ematea.

Zein da Artzain Mundua elkartearen helburua?

Bere helburua artzainarentzat merezi duen onspena lortzea da. Horretarako, lanbide bat eta bizimodu bat dela erakutsi behar da. Gizartearen harritu egiten da artzainen kongresua dela eta, baina pixkanaka artzaintza beste edozein lanbide bezala ikusi behar dugu. Beraiek ere, euren lanbidea etorkizunera eraman nahi badute, eguneratuta egon behar dira: teknologiak eskaintzen dituen aurrerakuntzei baliatu, euren ezagutza elkartrukatu...

Zuen ekimen garrantzitsuen artzainen kongresua izan da. Zer nolako esperientzia izan da?

Lehen kongresua 2002an antolatu genuen, oso denbora gutxian, eta toki ezberdinetatik etorritako 20 bat artzainek

parte hartu zuten. Momentu hartan jasangarritasunaren kontzeptua etengabe entzuten zen eta hemen dugun jasangarritasun oso adibide garbia artzaintza da. Hori dela eta, gizartegarengana jotzeko oso momentu estrategikoan antolatu genuen kongresua. Hala, gizarteak eta komunikabideek oso ondo landu zuten gaia. Eusko Jaurlaritzari gure asmoak garatzeko laguntza eskatu genion eta Munduko Landaguneko adar bezala jaiotzen ginen. Une honetan fundazioa sortzeko lehen pausoak ematen ari gara, Artzain Munduak entitate juridikoa izan dezan.

Aurrera begira zer egitasmo gehiago dituzue?

Kongresua erakuslelana da, gizartegarengana heltzeko tresna, baina Artzain Munduak baditu beste ildo nagusi batzuk. Bizimodu edo lanbide honen ezagupideak ahoz-kotasunez transmititu dira. Inon jaso ez diren naturarekiko ezagupide batzuk daude. Guk gizaldiz gizaldi ahoz transmititu den informazio hori dokumentazio zentro batean jasotzea nahi dugu: bai idatziz, bai ikus-entzunezkoetan. Orain, udaletan duten informazioarekin bilketa lana egiten ari gara. Bestalde, hemengo adineko artzainekin hitz egin nahi dugu artzaintza tradizionalaren informazioa jasotzeko eta, Renoko unibertsitatearen laguntzaz, EEBB-eraren joandako artzainen testigantza jaso ere bai. Azken 25 urteotan artzaintzaren garapena aurreko 4.500 urteetan baino

handiagoa izan da eta, ez bagara arin ibiltzen, informazio hori galdu egingo da. Ezin gara etorkizunera joan oinarri hori gabe, bestela norabidea galduko baitugu. Bestalde, urtero antolatzen diren festa, jaialdi eta txapelketetan sortzen den informazioa ere jaso nahi dugu. Horretaz gain, museo etnografiko bat egin nahi dugu. Bertan, objektu batzuk izango dira, baina baita museo digital bat eta artzaintza tradizionala egingo eta erakutsiko duen Museo Bizirik deitutakoa ere. Bukatzeko, artzainen inguruko topikoak gainditzeko, teknologiak ematen dituen aukerak bultzatuko ditugu. Hala, foro digital bat diseinatu dugu eta bertan euren kezka azaltzeko aukera dute. Artzain askok ordenadore bitartez foro horretan parte hartzeko aukera ez dutenez, aldizkari bat ere atera dugu.

Kaletarrok artzain munduaren irudi erratua al dugu?

Une honetan gizarteak artzainek betetzen duten papera aitortzen du, baina ez dago oraindik onespren profesionalik. Gizartea oraindik harritu egiten da pertsona batek lanbide bezala artzaintza hautatzen badu. Beharbada, garai bateko topikoenga-

“Gizarteak ez du ikusi artzaintza zer nolako garapenean sartuta dagoen”

tik izango da: artzaina isolatua zela, oso isila, mesfidatia, ez zuela aurrera egiten... Gizarteak ez du ikusi artzaintza zer nolako garapenean sartuta dagoen. Oraindik ere zikinarekin eta pobreziarekin lotzen dute eta, egun, artzainak oso bizimodu duina du. Gauzak egiten askoz ere hobeak gara saltzen baino: gauzak ondo egin dira, baina ez ditugu erakutsi.

Aurreiritzi hauek guztiek kalte handia eragiten al dute?

Eskolara etortzen diren ikasleen guraso batzuk semeak edo alabak hartutako erabakiarekin ados ez daudela konturatzen gara. Ez dute ikusten hortik irtenbiderik

izango dutenik. Topiko hauek guztiek ez dute batere laguntzen artzaintza aukera profesionala bezala izaten.

Gazte asko etortzen al dira?

Urtetik urtera jende gehiagok eskatzen du eskolan sartzera. Aurten 18 gazte daude eskolan. 10 ikaslerekin hasi ziren eta poliki-poliki kopuruak gora egin du. Lehen urtean baserri baserri gazte bila ibiltzen ziren, orain gazteak dira informazio eske etortzen direnak. Ez dira baserritarrak bakarrik etortzen, baita kaletarrak ere. Orain arte ikastera etorri den ikasleen erdia sektorean gelditu da lanean.

Gustura al zaudete lehen urte hauetan emandako pausoeekin?

Bai, bai. Lana oso zabala eta eman-korra da. Orain arte artzaintzaren sektorea produkzioaren aldetik bakarrik begiratzen zen. Ekoizteko eta saltzeko estrukturak eginda daude, baina artzaintzak kulturarekin ere zerikusi handia du. Artzain Munduak azken arlo hau bete nahi du.

Garai batean, ia baserri guztietan izango ziren ardiak, gainera.

Eguneroko laneko beste atal bat ziren. Behiak eta ardiak ziren baserri guztietan nagusitzen zirenak. Gainera, garai batean familia handiak izaten ziren, maiorazgoa baserriarekin gelditzen zen eta artzainak nomadagoak ziren, terrenorik gabeko artzainak. Egun, artzain gehienak lurjabeak dira eta artaldeak garai batean baino handiagoak dira.

Urretxu eta Zumarragan ez daude artalde handiak. Zer dela eta?



Inoiz pentsatu izan dut zergatik Oñatin oraindik ia baserri guztietan daude artaldeak eta Urretxu-Zumarragan ez. Oñatin artzaintza kultura oso errotuta dago. Nahiz eta hemengo baserritarrak ere industriatik bizi, artaldetxoa mantendu dute zelaiak garbi izateko. Urretxu eta Zumarragan, berriz, behiak, larre-behiak... gehiago mantendu dira. Bestalde, inon baino idi gehiago daude. Kultura kontuaz gain, orografia kontua ere izan daiteke: hemengo bailara zabalagoa eta lauagoa da eta Urretxu-Zumarragako aldapatsuagoa. Beharbada horregatik jo dute gehiago pinua sartzera.

Herri Aldizkaria

Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

Merkea eta ona!

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13



ALTZARIAK


MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 **ZUMARRAGA**
☎ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA



Ibon Garmendia

Non dago gure geroa?

Urretxuko festen ajea kendu ezinik nabilen honetan ohartu naiz kurtso berria hasia daukagula. Nire sentsazioetako bat izaten da, eta pentsatzen dut beste batzuen ere hala izango dela, festak amaitu eta hurrengo egunean hasten dela kurtsoa. Irailaren erdira arte mugari hori izaten dut buruan eta hortik aurrerakoak beste era batean bizitzen ditut.

Udazkenean sartzeko data irailaren 23a omen da, baina zin egiten dizuet nire barrenak festen ondorengo astearte horretan esaten didala, kitto! Atera jertseak, gorde bainu-jantziak eta hasi zaitetz ganorazko zerbaite-tan. Bizitza berri bat hasi behar dut eta San Juanetako espiritu gaiztoen uxatzearen antzeko zerbait bizi izaten du nire metabolismoak. Ikastaroak, kirol planingak, lanerako helburuak... Zenbatek hasi nahi ditugu proiektu berriak? Gero urtarrilaren 1ean (utz dezagun 2an) berrituko ditugunak? Eta seguraski beteko ez ditugunak...

Horrelako giro ezkorrean nagoelarik buruari buelta batzuk ematen hasia naiz gure bizimoduaren inguruan.

Gure herri honen bizitzaren udan ote gauden sentsazioa daukat aspaldian eta udazkena uste baino gertuago dagoela pentsatzen dut. Esan nahi dut. 70-80. hamarkadetan bizi izan zen susperraldi ekonomiko-sozial-kulturala udaberrizat hartuko nuke. Krisi latzak bizi izan genituen, drogak bero-beroan hartu gintuen bere atzaparretan baina gizarteak edo jendarteak bizitzeko behar zuen bizitasuna zeukan.

Gaur egun, udako beroaldian goxo-goxo bizi ote garen errezeloa daukat. Itxaropenaren garai haiek amaitzen ari dira eta udazkenera bidean goaz. Lehen egindako herri-lanen fruituetatik edo errentatik bizi garela iruditzen zait eta soldatarik gabeko lanerako dagoen iturri hori egunen batean agortuko den susmoa daukat, hau da, herri mugimenduak oso puntualak dira eta gero eta gutxiago sutzen da gizarte edo jendartea.

Gehientsuenak lo hartuta gaude eta poltsikoarekin pentsatzen dugu buruarekin beharrean (edo ez dugu pen-

tsatzen...). Aspaldi honetan herrian sortu den eztabaida gogorrena Mugitegi parean eraiki den errotondak ekarri du. Nire lagunartean gehiago hitz egin dugu horren inguruan etxebizitza erosteko daukagun zailtasunetaz baino, edota egingo diren proiektu berriei buruz baino (Urretxuko bial berria, AHTa, itxura garbirik ez duten hainbat proiektu...) Hori bai, eztabaida, Realaren egoerarekin hortxe hortxe ibiliko da lehian.

Gaur egun Nafarroa Oinezera joateko 2 autobus betetzen badira euskaltzaleok arrakastaz hitz egiten dugu eta ez gara konturatzen 15 egunez behin 4 edo 5 autobus betetzen direla Anoetara joateko.

Bailarako ekonomiaren egoera ez dago bere gorenean egia esan, gure gurasoen artean ia denek Urola Garaian lana egiten duten bitartean nire lagunaren %40 inguruk egiten dute. Urretxuko bi fabrika handienetatik batek 100 lanpostu ingururekin alde egin digu eta bestearen egoera aitortu dezaket ez dela kanpaiak jotzeko modukoa, bailarako beste hiru lantegi handienek ez daukate geroa ziurtaturik, ezta gutxiago ere. Baina gu lasai gaude. Nire galdera da; gure geroa Urretxu-Zumarragan izango al da? Orain arte bota ditudan kezka hauek eta beste batzuk dauzkat buruan, baina agian nire kontuak besterik ez dira izango. Beste iritzirik balego, nahi duenak hemen du haritxo bat datorren hileko iritzi artikulua idazteko.

Azken paragrafo honetan gaia erotik aldatzea barkatuko didazue. Gidoitik irtengo naiz momentuak eta barrenak halaxe eskatzen baitit. Urretxun erredobleak aspaldian tratatzen ari zaizkigu eta honetan aditua den batek istripu bat izan berri du. Askoren iritzia da danbor jole ona dela, beste batzuentzat irakasle ona izan dela, baina nik esan dezaket are pertsona hobea dela. Animo Juanma eta jakin ezazu Santa Zezilia gertu daukagula eta behar den bezala ospatzeko denok egon behar dugula. Doakizula besarkada bat zuri eta uneoro alboan dituzun etxekoei.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Emakumeen aurkako tratu txarrak etengabeak dira. Non dago arazoa? Eta irtenbidea?



Mikel De Juan

Zorrotzago zaindu beharko litzateke, baina salaketa egin bezain pronto. Betidanik egon dira halako kasuak, baina orain hasi dira emakumeak beldurra alde batera utzi eta salaketak jartzen. Nire ustez, hau konponbiderako lehen pausoa izan daiteke. Isilik egonda ez da ezer konpontzen. Gazte artean gutxiago ematen da, baina etxean ikusten denak zerikusi handia du.




Jaione Adrados

Ez da nahikoa egiten. Emakumea gizonezkoen gizartean bizi da oraindik. Legeak ezarri, gogortu eta betearazi egin behar dira. Hildako gehienak salaketak jarri dituzten emakumeak dira. Egia esan, beldurtzeko moduko kontua da.



Puri Plazaola

Halakoak gertatzen badira, nahikoa egiten ez den seinale. Ez da maila sozial kontua, goiko mailetan artean ere ematen dira tratu txarrak eta hilketak. Gizonari aspalditik irakatsi diote bera dela etxean jaun eta jabe, ezin duela negarrik egin... Hori guztia aldatu egin behar da, heziketan lan handia dago egiteko. Errespetu kontua da.



Txomin De Domingo

Ez du irtenbide errazik, bestela honezkero hartua egongo litzateke. Erasotzailea urruntzeaz, heziketaz... hitz egiten da. Komunikabideetan horrenbestetan ateratzea kaltegarria dela ere esaten da... Aspalditik datorren kontua da eta ez dago konponbide magikorik.

Montaje e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA
Taberna
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belor-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia

943 78 70 66
635 757 271

BIONA

AROTEGIA
Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Joxe Leunda, erlaunt

Berezko izaerak eta beharrak bultzatuta, Joxe Leunda urretxuarrak eskuzabaltasunez lan egin du herri honen alde: 8 urtetan zinegotzi, erlezain elkarteko lehendakari, Goierriko ordezkari EHNE sindikatuko zuzendaritzan... Leundak ez du aspertzeko astirik. Izan ere, ondo dion moduan, "bizia luzea bezain motza denez, zentzu gabe egun bat igarotzea geltokian trena galtzea bezala da".



Zer diozu zeure familiaz, Joxe?

Aita Ezkiokoa zen eta ama Beasaingoa. Ezkondu eta Deskargabarreneko Prontxone baserrira etorri ziren, maizter. Hantxe jaio nintzen eta oraindik han nago zentsatuta, nahiz eta Legazpin bizi naizen. Nik Patrizion lan egiten nuenez eta arrebak Legazpin mertzeria zuenez, bertan pisua erosi genuen. Baserria anaiak eramaten zuen eta oraindik behi batzuk badauzka.

Non ibili zinen ikasten?

Santa Barbaran euskara hutsean ibili ginen, baina 7 urterekin nazionaletara jaitsi nintzen. Santa Barbarako eskola tabernako jantokia dagoen tokian zegoen. Garai hartan haur asko zeuden inguru hartan eta baserritarrek antolatu zuten eskola. Udalak lokala jarri zuen, baina ordaindu egiten zen.

Euskaldun peto-pettoa, zer moduz moldatu zinen nazionaletan?

13 urte bete arte bertan egon nintzen. Hasieran gogorra izan zen, besteez aurrera egiten baitzuten eta guk ez. Gainera, tarteka baserritarroi "aldeano", "borono" eta halakoak deitzen ziguten. Laguntzen zigutenak ere bazeudela esan beharra dago. Dena den, erderarako grina handia zegoen. Guraso euskaldun petoak zituzten asko euskaraz ikasi gabe gelditu ziren.

Gerra ondorengo urte haiek ez ziren bate-re samurrak izango bestela ere...

Nahiz eta gure baserria txikia zen, kale gorrian baino zerbait gehiago sortzen zen. Dena den, baserrian ere gosea... Esnea eta izaten ziren, baina ogia nahi beste ez. Gainera, gure baserriak ez zuen bertatik bizi izateko gaitasunik eta aitak Patrizio Etxeberrian lan egiten zuen.

Zu non hasi zinen lanean?

13 urterekin eskola utzi eta nire jaiotetxeko ugazabaren baserrira joan nintzen lanera. Garai hartan gau-eskolara ere joaten nintzen. Bertako errekararen izena ez genekien ia eta Ebro, Tajo, Duero, *el otro y el de la moto* ikasi genituen. Maisua espainol huts-hutsa zen eta gu Jose Antonio Primo de

zako langilea

Riveraren diskurtsoak entzuteko desiatzen egoten ginen, gainera. Izan ere, horiekin hasten zenean beste lan batzuk ahazten zituen.

Eskolan esperientzia txarra izan zenuen arren, ikastea gustuko duzula esango nuke...

Egin gabeko gauza asko utzi ditudan sentsazioa dut. Orain konturatzen naiz, gehiago saiatur gero, aukera gutxi izan arren, gehiago egin genezakeela. Ikastea gauza handia da, egun bat galtzea tren bat galtzea bezala baita. Pertsona batek, eskua galdu nuenean, "orain arte besoak landu dituzu, baina aurrerantzean burua landu beharko duzu" esan zidan. Neure gisara ahal

"Ez dakit zeinek, eskua kentzearekin, kendu baino gehiago eman egin dit"

dudan guztia ikasten saiatu naiz, baina beste aukera batzuk ere izan zitezkeen. Dena den, bizitzari ondo erantzun diot eta gizartearen errespetua irabazi dut.

Zer aldatuko zenuke atzera eginenez gero?

Patriziotik irten nintzenean, fundiziozko zuzendariak "¿qué sensación lleva usted?" galdetu zidan. Nik, "con 16 años no empezaría en un fábrica de estas ni loco. Para mí una fábrica de este nivel es refugio de vagos y mangarranes", esan nion. Fabrikan oso gustura aritu naiz lanean, baina fabrika handi bat ez da pertsona gartzeko tokia. Ni, erretiratu eta gero garatu naiz asko. Askok "bi esku izan bahitu..." esan didate. Nik, "dudarik ez izan, askoz ere leloago izango nintzateke" erantzuten diet. Ezintasun horrek handitu egiten hau. Ez dakit zeinek, eskua kentzearekin, kendu baino gehiago eman egin dit. Fabrikan batzuk lanean ikusi eta "que se me diga manco

lo acepto, pero, viéndote a tí trabajar, que se me diga inútil, ¡ni por el forro!" esaten nien. Hori bai, erraminta guztiak eskubiko eskurako egokituta daude eta lan guzti buelta bilatu behar izan diet.

Eskua Patrizion galdu zenuen, zenbat urte eman zenituen bertan lanean?

17 urterekin joan nintzen Patrizio Etxeberria enpresara lanera eta 18 urterekin, istripu baten ondorioz, eskubiko eskua galdu nuen. Istripuaren ondoren ere Patrizion jarraitu nuen lanean, erretiratu arte: almagazetako kontrola eramaten nuen. 37 urte eman nituen bertan lanean. 56 urterekin aurrejubilizazioa eman ziguten gure adinekoei eta loturatik ihes egiteko zortea izan genuen, baina ez naiz inoiz gelditu.

Saltsa askotan ibilitakoa zara, bai. Zinegotzi izan zinen, adibidez.

Udaletxean zortzi urte egin ditut zinegotzi bezala, bi alditan: 1979tik 1983ra independenteekin eta 1987tik 1991ra Herri Batasunarekin. Hirigintza eta zerbitzu batzordean ibili naiz, batez ere. Zerbitzuen barruan nekazaritza sartzen zen eta azokak berreskuratzeko eta indartzeko lan asko egin genuen.

Zer nolako esperientzia izan zen?

Udaletxean eman nituen lehen lau urteetako esperientzia izugarria izan zen niretzat, nire bizitzako esperientzia onena. Jende preparatua baino gehiago, oso zintzoa zen. Harreman izugarria izan dugu eta oraindik ere senitartekoekin bezalako harremana dugu. Momentu oso zailak izan ziren, baina kanpotik etortzen ziren ekaitzak oso erraz gainditzen genituen. Juanito Arbizu Urretxun oso gustukoa zen, Jose Mari Lasa, Jose Luis Garmendia, Joxemi Lasa... guri botoa hasi eskubitik eta ezkererainoko jendeak eman zigun. Asanblearioak ginela eta batzarrean botatu ziren izenekin aurkeztu ginela esan beharra dago.

Zein esango zenuke izan zela zuen ekarpena?

Lan asko egin genuen, ez etxebizi-

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



Lanbiza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA


ZUEK BAI JAKINI!

tzak egiten, baizik eta zerbitzuak egiten. Izan ere, dena zegoen egiteko. 1987tik 1991ra, berriz, sekulako oposizioa egin genuen. Izan ere, hirigintza oso serio hartu beharrekoa da. Urretxuko garapena hitzarmen bidez egin da eta hala herritarrei ez zaie aukerarik ematen alegazioak egiteko. Hemen demokrazia delegatua da eta ona izateko partizipatiboa izan behar da. Kontratista bat udaletxe inguruan, otso bat ardi artean bezala dela esaten dut. Baina horretarako daude artzainak, ardiak babesteko. Otsoak zer egingo du bada, uzten bazaio? Artzaina artaldea zaintzeko dago, ez otsoarekin pastela egiteko. Bestalde, askotan eraikuntzak egin eta gero legea eraikuntza horiei egokitu da...

Nekazaritzako arduradun ere egon zinen.

Giro ona genuen, kultur etxeko teknikariek

Joxe Leundak txabola bikaina eta erlauntzak gordetzeko garaia egin ditu Santa Barbara azpian.



oso harreman ona nuen, azokak bultzatzen saiatu ginen... Ordu asko sartzen nituen eta jendeak udaletxetik irtendakoan zer egingo nuen galdetzen zidan. Enpresan ere berbera esaten zidaten! Ni lanera gustura joaten nintzen. Beti esan dut: lanean saiatuko naiz, baina aldeberean kritikoa izango naiz.

Urretxun Santa Lutzia feria indartzeko lan handia egin omen zenuen...

Sekulako buelta eman genion! Sartu nintzenezan fruta, barazki eta aberekin 50 metro bakarrik betetzen ziren Gernikako Arbola plazan, Zumarragak dena hartuta zuen. Hurrengo urtean, aurrekontu berarekin, 180 metro jarri genituen. Pauso handia zela ikusi zen eta Ramonek-eta oso gogotsu hartu zuten. Nahiz eta hirigintzan eztabaidak izaten genituen, ez ginen amorratu. Ni ibiltzen nintzen baserrita-

www.megadenda.com

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irún
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutuan

2005eko urria

ZUEK BAI JAKINI!

reirei deika, kultur etxeko Mirenek eta Irenek ez baitzuten ezagutzen baserri mundua. Izan ere, baserriarekin ondo ulertzeko baserriarra izan behar da. Baserriarrek erdixka, zeharka... hitz egiteko ohitura dute.

Erlezaintzan ere aritzen zara, nolatan?

Zazpi bat urte nituela, basoan erlauntz bat aurkitu nuen eta auzoko batek hura arbolatik atera zuen. Orduantxe hasi ginen etxean erleekin. Handik zortzi bat urtera, erle munduan gaixotasun bat sortu zen eta erle gehienak galdu genituen. Urte batzuetan erleen kontua utzita izan genuen, baina beti nuen buruan eta jubilatuta nintzenez burubelarri murgildu nintzen.


Zerk erakartzen zaitu hainbeste erleen mundutik?

Mundu zoragarria da. Erleen antolaketa eta ingurumenari egiten dioten aportazioa izugarriak dira. Edozein frutiarbolaren uzta bikoiztu egiten da, gutxienez, polinizazio on batekin. Ehiza gustukoa nuen, baina nik gozatzeko piztia akabatu baino, ingurumenari zerbait aportatuz gozatzea erabaki nuen. Santa Barbaratik Beidakarrera bidean terrenotxoia erosi eta sekulako lanak egin nituen.

Gipuzkoako Erlezain Elkarteko lehen-dakaria ere bazara...

Zazpi urte daramatzat eta ordu asko kentzen dizkit. Erleak gobernatzea erraza dela, erlezainak gobernatzea dela zaila, esaten dut beti. Erlezaintzak behar duen materiala erosten dugu erlezainen

Mendian, Genaro Elgarrestarekin: "aita 12 urterekin hil zitzaidan eta Genaro aita bezalakoa izan da niretzat".



"Ezkertiar matrikula duenak perfektuagoa dela dirudi, baina gizatasuna garrantzitsuagoa da"

esku jartzeko, ikastaroak antolatzen ditugu, aholkularitza eskaintzen dugu, aldizkari bat ateratzen dugu, bost urte daramatzagu bertako erlea berreskuratzen... Argi dago bertakoa dela hemengo klima eta orografiari hobekien egokituta dagoena, urte asko baitaramatza hemen. Kanpoko erleak, ordea, otsailean bi egun txoro egiten baditu, udan burubelarri sartu dela uste du.

Zure ezagun batzuek, langilea zarela azpimarratu digute.

Sekula ez naiz geldirik egon eta

egun guztiei garrantzia handia eman diet beti. Ohera zerbait berria egin dudala joaten banaiz, gustura sentitzen naiz.

Hori jakinda, jende asko hurbilduko zitzaizun laguntza eske...

Beti esan dut baietz esatea bezain garrantzitsua dela ezetz esatea, baina horretan ez genuen ikasi. Gauzak ondo doazenean ez dakit, baina gauzak gaizki doazenean, seguru han izango naizela. Joanda edo eramanda, ez dakit.


Bestalde, printzipio sendoak omen dituzu.

Nire lema gauzak patxadaz eta arretaz egin behar direla da. Bestalde, ezkertiarra naiz ideologiaz, baina garrantzia handiagoa ematen diot gizatasunari. Gizatasunez jokatzeko baduzu, nahiz eta ideologia ezberdinekoak izan, munduaren azkeneraino joango gara. Nire ustez gizartean hor zulo handia dago: ezkertiar matrikula duenak perfektuagoa dela dirudi, baina gizatasuna garrantzitsuagoa da.

Ez al duzu ezer egin gabe gozatzeko moduko zaletasunik?

Bertsolaritza asko gustatzen zait, baina, adinean sartzean, ezerk ez dit egiten halako emoziorik. Mutikotan-eta niretzat ez zegoen bertsoak baino gauza handiagorik. Bilbora, Donostiara... joaten nintzen bertsoak entzutera. Geu ere isildu ere ez ginen egiten, egungo aukerak izan bagenitu... Uztapide, Lasarte, Lazkao Txiki... oso gustukoak nituen, baina bertsolari petopettoa Txirrita zen nire ustez. Dena den, bat aukeratzekotan, Xalbador hautatuko nuke. Txistuak jo zizkiotenean han nintzen.

Erretería **BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxe: 943725431 - ZUMARRAGA


2005eko urria

Elgarresta eta Beltza,

Urola Eskubaloi Taldeak gazteekin lan bikaina egiten duela ez dago zalantzan jartzerik.

Taldearen sorreraz geroztik ehundaka gazteri kirola egiteko aukera eskaini diote eta hauetako

batzuek goi mailara heltzeko aukera izan dute. Urolaren harrobiko azken bi harribitxiak 15 urteko Markel Beltza eta 18 urteko Mireia Elgarresta dira. Markelek Bidasoaren kadete taldean jokatzeko du eta Mireiak Bera Beraren lehen taldean.



Nolatan hasi zinen eskubaloian?

Eskola kirolean hasi nintzen eta gustatu egin zitzaidan. Hori dela eta, 14 urterekin Urolara joan nintzen. Kadete mailako taldean jokatu nuen eta baita Gipuzkoako selekzioan ere. Lehen denboraldian goleatzaile nagusia izan nintzen eta Bera Bera taldeak fitxatu ninduen. Orduetik, Euskadiko selekzioarekin ere jokatu dut. Jubeniletan jokatu nituen bi urteetan goleatzaile nagusia izan nintzen eta bigarrenean Euskadiko jokalaria onena izendatu ninduten.

Zenbat denboraldi jokatu dituzu Bera Beran?

Hiru denboraldi jokatu ditut eta laugarrena lesionatuta eman dut. Lotailu gurutzatuak hautsi nituen eta oso urte txarra pasatu dut. Lehen ebakuntzaren ostean arazoak izan nituen eta handik hiru hilabetetara berriro operatu ninduten. Oraindik ez naiz guztiz erreperatu.

Oraindik ez zara jokatzeko hasi, beraz.

Egunero profesionalekin entrenatzen ari naiz, goiz eta arratsaldean, baina ez dut oraindik jokatzeko. Guztiz osatuko naizela esan didate. Muskulatura behar dut eta abiadura faltan nago, baina geroz eta hobeto sentitzen naiz. Abuztuaren 8an hasi nintzen entrenatzen eta sekulako hobekuntza nabaritu dut.

Lesionatu zinen eguna ere primeran oroituko duzu...

2004ko apirilaren 24a zen. Dagoeneko nazkatuta nago. Medikuek ez zidan lehen operazioa gaizki atera zenik esan, baina hori argi ikusten da. Izan ere, kirolfanoan egon nintzen denbora, erreperazioa nola joan den... ez da normala. Berriro ireki eta garbitu behar izan zidaten mugikortasuna lortzeko. Hotzean ez

dut mugikortasun handirik oraindik, baina berotutakoan askoz ere hobeto moldatzen naiz. Dena den, guztiz osatuko naizela esan didate.

Lehen taldera igo izanak aurrera jarraitzeko indarrak emango zizkizun.

Ondo baldin banabil Ohorezko Mailako taldean jokatu dudala esan didate eta, bestela, Lehen Mailan. Bera Berak Zarauzko taldearekin hitzarmena sinatu du eta bertan jokatu nuke.

Esperientzia gogorra bizitzea suertatu zaizu.

Etxeko guztiontzat izan da gogorra, adorerik gabe egon bainaiz. Dena den, gustatzen bazaizu, aurrera egin duzu. Gainera, taldekoak oso ondo portatu dira. Dena den, lesio hau nahiko ohikoa da eskubaloian jokatzeko dugun nesken artean. Aurreko denboraldian, profesionaletan, hiru neskek izan zuten lesio hau. Gure muskulaturaren ezaugarriengatik gertatzen omen da hori.

Zure ibilbidea ikusirik, lesionatu arte amets batean biziko zinen.

Hala da. Oso gogorra izan da, baina asko ikasi dut. Lehen dena oso polita ikusten nuen eta errazegia zen. Lesioarekin gogortu egin naizela esango nuke.

Aurrera begira, nola ikusten duzu etorkizuna?

Guztiz osatu eta belauna ahaztu nahi dut. Egunero profesionalekin entrenatzen ari naiz eta beraiekin jokatzeko gustatuko litzaidake. Kanpotik oso polita dirudi, baina oso gogorra da. Arratsaldean egunero entrenatzen dugu eta goizez astean hirutan. Batxilergoko bigarren mailako klaseak hasi ditudenez, goizeko entrenamenduetara ez naiz joaten.

esklubaloiko erraldoiak

Nolatan hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Pilotan eta futboleko aritzen nintzen, baina familian eskubaloizale giroa dago eta nik ere eskubaloian hastea erabaki nuen. Izan ere, anaiak Urolan jokatzeko du eta aita ere taldean sartuta dago.

Zer ibilbide osatu duzu ordutik?

Duela bi urte Urola taldean hasi nintzen. Bidasoa taldeak jarraipena egin zidan eta hurrengo denboraldian Irunera joan nintzen eurekin jokatzera. Ezkerreko hegalean jokatzeko dut.

Denboraldi bakarra jokatu Irunetik dietu zizuten, azkar ikasi zenuen ikasi beharrekoa...

Urolan egon nintzen denboraldian selekzioarekin ere jokatu

Hondarribia inguruko jokalaria daude. Horietaz gain, Donostiako mutil bat eta ni besterik ez gaude.

Ondo moldatzen al zara entrenamenduetara joateko?

Astean bitan edo hirutan joaten naiz: batzuetan etxekoek eramanen naute eta besteetan trenez joaten naiz. Gogor samarra da, entrenamendua dudanetan arratsalde osoa galtzen baitut. Dena den, DBH 4 ikasten ari naiz Lizeoan eta oraingoz ondo moldatzen ari naiz.

Zer moduz hasi da aurtengo denboraldia?

Orain jubenil mailako taldearekin jokatzeko ari naiz. Izan ere, talde honetako asko senior mailara pasatu dira. Salto handi samarra nabaritu dut, baina pozik nago.

Naiara Elgarresta:

“Lesioarekin gogortu egin naizela esango nuke”

Markel Beltza:

“Nire adinerako nahiko altua naiz eta horrek lagundu egin dit”

nuen eta hor maila altuagokoekin jokatzeko aukera izan nuen. Nire adinerako nahiko altua naiz eta horrek lagundu egin dit.

Zer moduz Bidasoarekin jokatu zenuen lehen denboraldia?

Kadete taldearekin jokatu nuen eta erkidego mailako liga irabazi genuen. Zaintiratu bat dela eta, denboraldi hasieran hiru hilabete egon nintzen jokatu gabe; baina gero normaltasun osoz jokatu nuen.


Gipuzkoa osoko jokalaria al zaudete taldean?


Batez ere Irun eta

Jubenil mailan ere onentsuenak gara, Arraterekin batera.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Jarraitzeko asmoa dut. Eskubaloian jokatzeko asko gustatzen zait, baina ez daukat zer gertatuko den esaterik. Gure taldearen gainetik 2. nazionalekoa eta senior mailako bi talde daude. Goi mailara heltzea ez da batere erraza, lesioekin zorte handia izan behar da, besteak beste. Bestalde, Bidasoak ez du garai batean izan zuen maila, baina atzerritar asko ditu eta aurtengo European jokatzeko ari da.





Javier Fernandez

Javier Fernandez Urretxuko Larreaga baserrian jaio zen. Aita Valladolidetik hona etorri zen lanera eta bertan hartu zuten alokairua. La Salle-Legazpi ikastetxean ikasketak egin ondoren, Irimon hasi zen lanean. Fernandezek 24 urte eman zituen Irimon lanean. Ondoren, Tximista enpresan lan egin zuen eta, duela 6 urte geroztik, UGLEko langilea da. "Mantentze lanetan hasi nintzen, baina orain Prestlanen ari naiz. Bertan, hemengo enpresentzako lanak egiten ditugu. Ikasleei lehen lana eskaintzen diegu eta asko ikasten dute: ordutegia errespetatzen, arduratsuak izaten, kalitatea lantzen..."

Fernandezek ez zuen uste gazteekin lan egiten bukatuk zuenik, baina oso gustura dabil. "Oso ondo moldatzen naiz beraiekin: askoren kasuan, kalean ematen dute irudia eta euren benetako izaera ez datoz bat". Lanetik kanpo ere Javier Fernandezek gaztetxoekin lan egiten du, Gainzuri ikastetxeko mendi irteeren arduraduna baita.

Izan ere, mendizale amorratua da. Hala, Ostadar Mendi Taldeko sortzaileetako bat izan zen eta elkarreko lehendakari ere bai. "15 urterekin hasi nintzen mendira joaten. Lehen botak erosteko, Joxe Felix Gonzalez Uribesalgo zenak eta biok dirua aurrezten hiru hilabete eman genituela gogoratzen dut. Egun osoa denda aurrean ematen genuen, botei begira!"

Ordutik, makina bat bota pare hautsi ditu. "Hemendik Bartzelonara bitarteko mendi garrantzitsu gehienak igo ditugu. Garai batean, bi astetan behin joaten nintzen Piriniotara. Alpeetan, berriz, behin bakarrik izan naiz. Egun osoa eguraldi partearen zain ematen genuen eta gehiagotan ez joatea erabaki nuen".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Familian denak mekanikariak dira, baina nik elektrikari izan nahi nuela oso argi nuen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea eta mendiko argazkiak ateratzea.

-Bizitzeko toki bat?

Urbia. Perusaroi elkarteko bazkidea naiz eta jubilatuta-koan bertan bolada luzeak pasatzeko asmoa dut.

-Sekula igo duzun mendirik altuena?

Aneto, oso Piriniozalea naiz.

-Mendirik gustukoena?

Balaitous. Edozein tokitatik igota ere, benetako mendia da.

-Bueltatxoa emateko?

Belokiko buelta. Zementozko bidea izugarri atsegin dut.

-Gustuko mendizalea?

Manuel Iraola, Juan Mari Gabilondo... Mendian ibiltzen irakatsi didaten horiek. Pertsona bezala ere asko ikasi dute beraiengandik.

-Irimo ala Izaspi?

Izaspi nahiago dut, mutikoeekin joateko aproposagoa da.

-Mendirako lagunik onena?

Jende askorekin ibili naiz, baina gehien Ramon Gaztañagarekin.

-Ilehortiak ala beltzaranak?

Beltzaranak esan beharko dut, bestela...

-Egindako azken operaria?

Semeari oparitu nion saskibaloi kamiseta.

-Eta jasotakoa?

Semeak oparitu zidan mendirako bisera.

-Data bat?

Ez dut data bat bereziki gogoratzen.

-Neska eta mutil izen bana?

Mutil izena, Iñaki. Neska izenei dagokienez, ez dut izen bat bereziki gustuko.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Ez dut telebistarik ikusten.

-Bereziki gorroto duzuna?

Iluntzean hondamendien inguruko saio bat botatzen dute eta ez dakit jendeak nola ikus dezakeen halakorik.

-Liburu bat?

Kurt Diembergerren "El nudo infinito" mendiari buruzko liburua gau bakarrean irakurri nuen.

-Filme bat?

Ez dut bat ere bereziki gustuko.

-Soinu bat?

Errekarena.

-Usain bat?

Usaimen eskasa dut, baina etxean irteerak prestatzen ari naizenean lur hezea usaindu dezaket.

-Janari bat?

Arrautza frijituak patatekin.

-Ura ala...

Ardoa.

asirauto



Hilabete honetako aukera berezia:



Volkswagen Sharan TDI 115
2000. urtekoa



Citroën C2 VTR 1.6 16v
2003. urtekoa



Citroën Berlingo 1.9 D
2003. urtekoa



Fiat Ducato 2.3 JTD
2003. urtekoa



Volkswagen Polo 1.9 D - 5 ate
1998. urtekoa




Peugeot Partner 1.9 D
2002. urtekoa



Seat Leon TDI 110
2000. urtekoa

Mugitegi industrialdea, URRETXU
Telf. eta fax: 943 72 59 22 - Mugikorra: 659 67 89 79



SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE